



- Auzokide agurgarria:
- Atsegin handiz, datorren **2012ko urtarilaren 1etik** aurrera Ermuko UKEk egun abonatuak direnei zein abonatua izateko erabakia hartzen dutenei eskeiniko dizkiegun abantaila berri guztietaz informatzen dizugu. **14 ekimen berri** dira, hauek guztiak kalitate gehiago, zerbitzu gehiago, prezio hobeak eta, laburbilduz, **zure beharrei erantzun hobe**a eskeintzeko konpromisoa harturik egiten direnak.
- Hortaz, egun gure abonatuak direnek gozatzen dituzten abantailatz gain, **spa gunea, lurrin bainua, muskulaziorako oinarrizko gimnasioa, rokodromo-boulderra edo frontoia** kasu (azken hau goizeko ordutegian), 2012ko urtariletik aurrera hauexek gehituko dira:
- 1.- **Norbanako txartel juniorraren** eraketa, **urtebetez estaldura areagotzen** duena, 18 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoentzat.
 - 2.- **4 urtez gehiago txartel familiarraren hedapena 24 urte betetzen dituzten** urteko abenduaren 31ra bitartean jaiotako seme-alabentzat, beti ere familia etxebizitzaren baitan bizi baldin badira.
 - 3.- **Norbanako txartel helduaren** eraketa, 19 urte betetzen dituzten urteko urtarilaren 1era bitartean jaiotakoentzat.
 - 4.- **Hileko ikastaroen prezioen** sinplifikazioa, honako era honetan:
 - **Oinarrizko tarifa**, aerobic, mantenimendu gimnasia, dantzak, irristaketa, body power, zuzenduriko igeriketa, aquagym ordutegi finko batean edo Fitness-a burutu nahi baduzu (azken hau 3 egun/astean bezalako jardueratzat hartzen da).

	EGUN 1 /ASTEAN	2 EGUN /ASTEAN	3 EGUN /ASTEAN
GINARRIZKO TARIFA IKASTAROAK	12,25	23,80	32,05

- **Plus tarifa**, ordutegi finko batean pilates, barne txirrindularitza eta stretching-a burutu nahi baduzu.

	EGUN 1 /ASTEAN	2 EGUN /ASTEAN	3 EGUN /ASTEAN
PLUS TARIFA IKASTAROAK	14,35	26,95	34,90

- 5.- **%20-ko beherapena** une berean Oinarrizko tarifen edo Plus tarifaren baitan dauden bi jardueretan izena emana dutenei. Beherapena prezio murriztagoa duen jarduerari aplikatuko zaio.
- 6.- **Premium tarifaren eraketa**, 16 urtetik gorakoentzat, Fitness-a eta Oinarrizko zein Plus tarifaren baitan dauden edozein jarduera burutu nahi baduzu, mugarik gabe, edozein ordu nahiz egunetan, soilik egunean bertan aurrez aurre zein telefonoz plaza erreserbatuz.

	ORDUTEGI LIBREA
PREMIUM TARIFA	39,95

- 7.- **Squash-a doakoa** asteko egun guztietan Kiroldegia irekiera ordutegian.
- 8.- **%33,5-eko beherapena** Betiondo eta M.A. Blancoko kirol anitzeko pisten asteburu eta jaiegundetako erreserbaren prezioetan.
- 9.- **%28-eko beherapena** futbol zelaiko asteburu eta jaiegundetako erreserbaren prezioetan.
- 10.- **%25-eko beherapena** Aritzmendi Frontoiko kantxaren erreserbaren prezioan lanegunetan 16,00-etatik aurrera, asteburu eta jaiegunetan.
- 11.- **%16-eko beherapena** Frontoiko programaturiko hileko erreserbaren prezioan.
- 12.- **%53-eko beherapena Kirol txartelaren berrikuntza edo kopia bat igortzeagatik prezioan**; berau txartel berria eskatzen den guztietan kobratuko da, arrazoia edo txartelaren aintzinasuna edozein delarik ere.
- 13.- **Aldaketa hobaritutako abonuen eskakizuna** entregatzeko epean, PFEZ-aren aitorpena aurreko urtekoa izan dadin, onuradunei dagokion abonuen zenbatekoaren %50-a itzuliko zaielarik.
- 14.- **%3-ko igoera hobaritutako abonuen urteko gehienezko irabazien baremoan**, hobera 1 eta 2 kidez osaturiko elkarbizitza-unitateen kasuetarako.

Informazio gehigarri behar izatekotan, bezeroaren arreta zerbitzuko 943 179 218 telefonora hots egin dezakezu, clientes@imdermua.com-era idatzi, edo M.A. Blanco Udal Kiroldegiko ofizinetara hurbildu zaitezke, atsegin handiz hartuko zaitugu eta.

Kirola eta osasunarekin bat egin ezazu!

Miguel Ledesma Piñeiro
Presidenteordea



IMD Ermua
Kirola zure gustuko

Orain abantaila gehiagorekin